



ikastolak



GARCÉS DE LOS FAYOS IKASTOLA
TAFALLA



'TheJasier' ezizenaz aritzen da Hasier Etxapare Kareaga, famatua egin zen bertan argitaratutako hari bat medio, non euskarazko adiera batzuk ezagutzea eman zituen.

📷 Mikelats, Jon eta Iker
(DBH 4. mailako ikasleak)

TAFALLA - Hasier Etxapare Kareaga Tafallan jaio zen duela 17 urte. Tafallako ikastolan ikasi zuen lehenbizi; ondoren, Iruñeko Alaitz institutura joan zen eta gaur egun Gasteizen Ingeles Filologia egiten ari da. Olerkiak idaztea gustukoa du eta heavy musika entzutea.

TheJasier da Twitterren erabiltzen duen izengoitia. Duela gutxi sare horretan famatua egin zen argitaratutako hari batengatik. Bertan euskarazko hainbat hitzen esanahi etimologikoa plazaratu eta izugarritzko arrakasta lortu zuen, hemen eta atzerrian.

Hitzak, besteak beste, honakoak ziren: saguzahar, ortzadar, suhiltzaile, ilargi, otsail, amona, hilerri, basamortu... Bere azalpenak honako esapide honekin bukatzen zituen: *And I think that's beautiful* (eta ederra dela uste dut). Argitaratu zuen lehenengo txioak 8000 atsegite izan zituen eta 15.000 elkarbanatze baino gehiago.

Hasierrek euskararen xarma, misterio eta edertasunarekin bat baino gehiago ahoa bete hortz utzi zuen.

Adibidez: "En euskera no decimos luna, decimos *ilargi*, que más o menos se traduce como *luz de los muertos*, and I think that's beautiful". Edo beste hau: "En euskera no decimos *febrero*, decimos *otsaila*, que más o menos se traduce como *mes de los lobos*, and I think that's beautiful".

Nola bururatu zitzaizun horrela-ko gauza bat egitea?


-Ez nuen asko pentsatu, bat-batean etorritako ideia bat izan zen. Hasiera batean soilik lehenbiziko mezua bota nuen, nire bikotea zenari laztana esan ohi niola-ko eta hitzaren indar poetikoaz ohartu nintzelako. Haria luzatuz joan nintzen egun osoan zehar, ideiak banan-banan pentsatuz eta gehituz. Hizkuntzarekin jolastea-gatik egin nuen, ez nuen arrakastahau batere espero.

Zer pentsatu zenuen haria hain famatua egiten ari zela ikustean?

Hasier Etxapare Kareaga

TAFALLAKO IKASTOLAKO IKASLE OHIA

"Twitter, euskararen edertasuna erakusteko bide egokia izan daiteke"



-Hasiera batean pixka bat beldurtu nintzen, egun batetik bestera jarraitzaile ugari lortu nituelako, eta sare sozialetan arduraz ibili behar zara gizatalde handi baten gainean eragina izan behar baduzu. Baina uste dut gauza onetarako erabili dezakedala eragin hau, eta ospe pixka bat izate oso lagungarria izan daiteke etorkizunean nire olerkaritza-lanak argitaratzeko eta hizkuntzalaritzaren munduan toki bat lortzeko.

Zer da hariekin lortu nahi duzuna?

-Nire Twitter kontuak oso helburu zehatza eta garbia du: nik ondo

GALDERA MOTZAK

Libururik gustukoena?

'El caminante y su sombra' (Friedrich Nietzsche).

Pelikularik gustukoena?

'El gran Torino' (Clint Eastwood).

Abestirik gustukoena?

'Locura transitoria' (Extremoduro).

Janaririk gustukoena?

Arroza edozein eratar.

Edaririk gustukoena?

Zurrapapotea.

Gustuko duzun zerbait?

Elkarlana.

Gorrotatzen duzun zerbait?

Zentsura.

pasatzea. Aisialdirako tresna bat besterik ez da, ez da inoiz nire lanen ardatza izango. Hari hauen helburua nire gozamena da. Baina uste dut hizkuntzarekin jolasteko grazia pixka bat dudala, eta, ondo lantzen badituz, hari hauek hizkuntzen eta euskal kulturaren edertasuna jendeari erakusteko bidea izan daitezkeela. Nire frikitasuna zabaltzea lortzen badut eta euskararen gainean dauden estigmak pixka bat garbitzea lortzen badut, irabazi handi bat izango da niretzat.

Beste haririk ba al daukazu?

-Bai. Euskal abizenen inguruko

haria da famatuena. 154 euskal abizen aztertzen ditut haien esanahien bila, eta hausnarketa txiki batekin laguntzen dut haria, abizenek erakusten dizkiguten datu soziologiko interesgarriak aztertzea animatuz. Gero zenbait hari txikiago ditut, pelikulei (*Watchmen*, *Johnny got his gun...*) edo gai historikoei (*La teja de medianoche...*) buruzkoak.

Norbaiten laguntza jaso al duzu edo zuk bakarrik egin dituzu?

-Ez dut laguntzarik jaso. Bilaketak egin ditut liburutetan edo interneten, baina agertzen diren ideia eta lan gehienak nireak dira.

Beste proiekturik al duzu?

-Bai, proiektu pila bat! Azken finean oso gaztea naiz eta kuriositate ugari ditut filologiaren, hizkuntzalaritzaren eta arteen munduan. Esate baterako, asko gustatuko litzaidake egunen batean

"Euskararen inguruan dauden estigmak pixka bat garbitzea lortzen badut, irabazi handi bat izango da niretzat"

"Egunen batean nire olerkien liburua argitaratzea gustatuko litzadake. Dagoeneko bi prest ditut eta hirugarrena martxan"

nire olerkien liburua argitaratzea, jada bi bilduma ditut prest, eta hirugarren bat martxan dago. **Beste hizkuntzaren bat dakizu?** -Gazteleraz eta euskaraz gainera, ingeles-maila on bat daukat, C2 bat, Cambridge akademiarekin lortua. Horrez gain, alemaniera ikasten ibili naiz, eta latinera eta grekera asko gustatzen zitzaizkidan Batxilergoan.

Ez da famarekin kontaktua izan duzun lehenengo aldia, "Ahora caigo" programan ateratzen zinen. Nolakoa izan zen esperientzia?

-Egia esan, ez dakit horrenbestetarako den. Ez nintzen ospetsua egin, bakarrik esperientzia desberdin bat izan zen, telegistaren mundua pixka bat ezagutzeko aukera bat. Ondo dago gauza horiek nola funtzionatzen duten jakitea, baina egia esan hango giroa ez zitzaidan gehiegi gustatu. Programaren gidoia guztiz prestatua zegoen eta parte hartzaileak produktuak beza-la tratatzen ziren. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein izengoiti erabiltzen du Hasierrek Twitterren?
2. Twitterreko beste hari famatu batean zenbat abizen aztertzen ditu?
3. Telebistako zein saiotan parte hartu zuen? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1 eta 2): Lucia Campo (Ibaialde) eta Maria Mayora (Elizondo). INTER-SPORT IRABIA (baloia): Izar Bakeriza (Andra Mari). OSASUNA (6 sarrera): Aimar Nuin eta Haritz Aizpurua (Jaso); Xabi Aizpun (Gares). ASEGARCE (4 sarrera): Julen Urrutia (Baztan).



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA



fundación osasuna

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua eraikuntza dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.